

Zestapunta ♦ Partidu guztian aurretik joan ziren. Barrondo kaskar ibili zen

Egiguren II.a-Felixek, aise

35 -28 irabazi zieten Uriarte-Barrondori binakako txapelketan

Estitxu Elduaen / Donostia

BURUZ BURUKO Euskal Herriko txapeldunak, Felix Espillak, ondo baino hobeto hasi du binakako txapelketa ere, eta, Egiguren II.a aurre-lari zuela, garaipena lortu zuen atzo txapelketako bere estreinako partidari. Uriarte eta Barrondoren aurka neur-tu zituzten indarrak, eta esfortzu handirik egin gabe lortu zuten, gainera, garaipena: 35-28.

Izan ere, kaskar ibili zen atzo Barrondo atzeko koadroetan, eta huts gehiegi egin zituen. Pattal hasi zuen norgehiagoka, eta pattalago amaitu: pilota dezente galdu zituen, eta bere ohiko mailaren azpitik ibili zen. Buruz buruko txapelduna, berriz, konfiantzaz atera zen Gernikako pilotalekura, eta behar bezala egin zuen bere lana Felixek. Jaun eta jabe izan zen atzeko koadroetan.

Hala ere, eta bikote irabaz-lea markagailuan denbora guztian aurretik joan arren, partidua ez zen hain kaskarra izan, eta une askotan nahiko berdinduta egon ziren bi bikoteak.

Bereikua-Enbilek lortu zuten lehen garaipena

Uriarte-Barrondo eta Egiguren II.a-Felixek atzo jokatu-takoa Euskal Herriko binakako txapelketako bigarren



ARTXIBOKOA

Barrondo ez zen bere mailan ibili atzo, partidua kaskarra egin zuen.

jardunaldia izan zen, bezperan jokatu zen estreinakoa. Bertan, Bereikua eta Enbilek irabazi zuten Alberdi I.aren eta Osaren aurka, baina izerdi asko bota eta gero. Izan ere, oso parekatua izan zen igandeko partida, eta bi bikoteek izan zuten garaipena lortzeko aukera. Azkeneko tantoan erabaki zen norgehiagoka, eta 35-34 alde justuarekin irabazi zuten Bereikua eta Enbilek.

Dena dela, txapelketa hasi

besterik ez da egin, eta oraindik zortzi jardunaldi jokatu dira finalerdiak erabaki aurretik.

Aurten bost bikote dabil-tza Euskadiko binakako txapela lortu nahian: Uriarte-Barrondo, Egiguren II.a-Felix, Bereikua-Enbil eta Alberdi I.a-Osarekin batera, Konpak eta Aranburuk osatzen dute parte hartzaileen zerrenda. Azken horiek, datorren larunbatean, urriak 2, jokatu dute

estreinako partida, Alberdi I.a eta Osaren kontra, Bilbo-ko Deportivon.

Bost bikote horiek elkarren kontra ligaxka bat jokatu dute urriaren erdira bitartean. Ligaxka horretako lau bikote hoberenek finalerdiak jokatu dituzte orduan: aurreneko finalerako txartela hilaren 15ean jokatu da, eta bigarrena 18an. Final handia, berriz, urriaren 25ean jokatu da Gernikan, Jai Alai pilotalekuan.

txokoa

Valentziako pilotarien eta Aspekoen arteko torneo

Urriaren 10ean Airtel pilota irekia hasiko da, eta bertan Valentziako selekzio bat Aspeko pilotari batzuekin neurtuko ditu indarrak. Eugi, Capellan, Apeztegia, Dani eta Alberdi III.a joango dira Valentziara, eta han Sarasol, Nuñez, Cervera eta Pucholek osatutako taldearekin jokatuko dute. Guztira hiru partida jokatu dira torneo horretan, bi binakako eta buruz buruko bat; garaipen bakoitzak puntu bat balioko

du, eta gehien lortzen duen taldea izango da irabazlea. 70 gramoko pilotekin jokatuko da torneo, eta partidua 32ra izango dira.

Titin-Lasarentzat sanmateoetako txapela

Asperen sanmateoetako binakako torneo Titinek eta Lasak irabazi zuten igandean, Capellan eta Elkorori 22-15 gailendu ostean. Titinek sekulako partida egin zuen goraino betetako Adarraga pilotalekuan, eta bera izan zen jaun eta jabe aurreko koadroetan.

Iturbe-Bortheiru eta Larrarte-Molinak jokatu dute bihar finala

Euskal Herriko Xare Txapelketa-EGUNKARIA sariko finala bihar jokatu da, Irurako Ametsa trinketean. Aurrez aurre Iturbe-Bortheiru eta Larrarte-Molina ariko dira txapelaren bila, azken horiek izan baitziren garaile bigarren finalerdian.

Aimar Olaizolak 100 partida jokatu ditu profesionaletan

Olaizolarren gazteenak bere ehungarren partida jokat

tu zuen atzo profesionaletan. Arnedon jokatu zuen partida hori Olaizola II.ak, Goñi III.aren, Capellan eta Santiren aurka.

Ezkurak gelditu du Altuna II.a

Garikoitz Altunak ezin izan du pasa den asteburuan bere zortzigarren garaipena segidan lortu, Ezkurra eta Txikuriren aurka galdu egin baitzuen larunbatean. Hortxe-hortxe ibili zen, ordea, Altuna II.a atzean Lizaso lagun zuela; tanto batengatik bakarrik galdu zuten: 39-40ko emaitza izan zen.

Karrikart eta Dermite finalera heldu dira Baigorri

Andde Zast / Baigorri

FRANCIS KARRIKART-EK eta Jean Claude Dermitek finalerako txartela lortu zuten igandean, Filipe Lafitte eta Philippe Mugikaren aurka 50-40 irabazi eta gero, Baigorriko Herriarena Xapelgoan. Udako aro ona izanik ere, pilotazaleek ez zuten finalerdiako bigarren hitzordua hutsegin.

105 minutuz eta erritmo biziz egin zen norgehiagoka Baigorri, eta parioetan hirurogei ehuni atzetik zeudenek irabazi zuten.

Francis Karrikartek berriz ere aitzinean hobere-netarik dela erakutsi zuen. Garaztarrak hamai-ka kintze egin zituen botez, irail honetan sasoi betean dagoela erakutsirik. Parean Lafittek eta Mugikak, Baionako Masterra irabazirik ere, ezin izan zuten partida hastapeneko aurkarien indarrari itzuli.

Azpimarragarria, hala-ber, Dermitek erakutsitako joko paregabea, Mugika Frantziako txapeldunari ezin hobeki aitzin egin baitzion.

Bikote irabazleak urriaren 10ean jokatu du Baigorriko Herriarena Xapelgoko final handia, Patrick Ibarrolak eta Filipe Karrikak osatutako bikotearen aurka.

Pessaceko Xapelgoa ostegunetik aitzin

Bestalde, Pessacen mahats-biltze garaiko ohiko xapelgoa heldu den ostegunetik abiatuko da. Peio Garaikoetxea aldudarrak Girona eskualdean antolatutako norgehiagoka horrek Muskarditz-Dermite eta Aranburu-Martiarena bikoteak batetik, eta Agerre-Mugika eta Karrikart-Itoiz bestetik bilduko ditu datorren urriaren 28ra bitarte.

gaurko partidua

ARNEDO. 19:30.

- Berasaluze VII.a-Apeztegia / Atxa-Auxkin.
- Etxaniz-Elkoro / Goñi II.a-Berna.

EUSKAL. 16:00

- Perugarria-Reclusa / Zizanda-Barrenetxea II.
- Ezkurra-Zubeldia / Zuberio II.a-Eizaguirre.
- Urreta I.a-A. Lekunberri / Elizalde-Lizaso.
- M. Lekunberri-Txikuri / Inigo-Auzmendi.